

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jarduera fisikoa eta aldarrikapena, inoizko Lilatoirik jendetsuenean

Sei milatik gora partaide elkartu ziren Donostiako kaleetan, tartean, Andoaingo eta Urnietako partaide ugari / 8-9

AIURRI

Inauteriak, Andoainen eta Urnietan

Iristear da mozorro-festa handia. Andoainen, ostegunetik igandera bitarte, Inauteriak ospatuko dira; Urnietan, ostiralean eta, nagusiki, larunbatean. / 14-15



Bertako zuhaitzen landaketa Leitzaran haranean, Eguzki talde ekologistaren eskutik / 3



Itxaso arrandegia: "Jendea oso ondo portatu da beti gurekin eta oso eskertuta gaude" / 4

Tailerrak eta antzezlanak, Urnietako martxoaren 8ko egitarauan / 5

Andoaingo Osasun Etxeko arretazerbitzua hiru orduz luzatu dute, 20:00ak arte / 3

**MARTXOAK 1
LARUNBATA**

**16:30ETIK AURRERA
GALARRETA JAI ALAI
HERNANI**



SARRERAK

berria

**ERREMONTA
TXAPELKETA 2025**

1. PARTIDA:

ALDABE • MARTIRENA VS JABALERA • LARRAÑAGA

2. PARTIDA:

ANSA II • JUANENEA VS URRIZA • AZPIROZ

3. PARTIDA:

GURRUTXAGA • ESKUDERO VS Aiestaran VI • Aiestaran VI



**AIURRIREKIN
BATERA**

2025

Kantu liburuak

MIZPIRADI 943 59 39 54
SAGARDOTEGIA

Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

sagarra, sagarrondoak, sagardoa

gure lurralari estuki lotuta doa

AMDOA ERRETA
ANDOAINO USALA

sagardoa route Ez Zaitetz EROTU!

HEMENDIK Aurrera ERRESERBATU ZURE MAHAIA ELIK GATEAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus

Zatoz gure sagardotegira!
Erreserbak. Tf: 943 55 49 17
Web: altumasagardotegia.eus

ALTUNA

Galarraga baserria, 5. Lategi. Urnieta

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUIPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardoazaleen logela

HOTEL HK10
HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta

943 59 19 68

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

www.gaztanaga.eus
info@gaztanaga.eus

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN

O! OIANUME SAGARDOTEGIA

OIANUME
SAGARDOTEGIA - JATETXEA

oianume.com/eu - oianume@oianume.com
943 55 66 83 Ergoien, 18 - Urnieta

EULA

TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA

943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com

LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA
943 555 846 - 616 287 867

Ereñotzu auzoa, 58
Hernani

larregain.sagardotegia@hotmail.com



AIURRI

Zuhaitz-landaketa, Eguzkiren eskutik

Munttoko parajeetan, Leitzaran bailaran, pagoak eta haritzak landatzen aritu ziren hainbat herritar. Aurreko larunbatean izan zen, Eguzki talde ekologistak antolatuta. Udaleko zenbait ordezkariak eta langileak eta Foru Aldundiko basozainek ere parte hartu zuten

ekimenean. Bigarren urtez jarraian egin dute zuhaitz-landaketa. Landaketak eta Leitzaran hizpide hartuta, hiru egun lehenago, hitzordua antolatu zuen Eguzkik. "Leitzaranen aukerak eta arriskuak" izenburupean, hitzaldi interesgarria eman zuen Arturo Elosegik.



AIURRI



AIURRI

Bertako eta Extremadurako jakiez osaturiko barrikotea

Zuzendaritza berria dago lanean eta ekimen berriak egingo zituztela iragarri zuten. Bada, esan eta egin: "Barrikote extremeño-euskalduna" antolatu dute datorren martxoaren 15erako. Menua ikusita, bertaratzen denak bapo bazkalduko du: Extremadurako hestekien dastaketa, txorizoa sagardoarekin, kroketa ezberdinak, txuleta eta Extremadurako gozoen dastaketa, sagardoa, ardoa, ura eta kafea.



AIURRI

Prezioa 30 eurokoa da eta martxoaren 3a baino lehen eman behar da izena. Honako telefono honetara hots egin beharko da: 660 681 374.

Haurrentzat ere menua prestatuko dute, 10 eurotan: makarroiak, frijituak, izozkia eta freskagarriak. 14:30ean emango diote hasiera bazkariari.

KOMUNITATEA

BURUNTZALDEKO TRANSMARIBIBOLLOAK BETERRI-BURUNTZA

Hemen da Buruntzaldeko lehen Lumakadaka eguna!

Eskualdeko lehen Lumakadaka eguna antolatu dugu Buruntzaldeko Transmaribibollook, martxoaren 29an, Andoaingo Gaztetxean. Egun osoko egitaraua izango da, goizetik hasita eta gaueko ordu txikiak arte: 11:30ean solasaldia izango dugu, Euskal Herriko zenbait txokotako esperientzia kuirrak ezagutzeko, mahaiaren bueltan. Ondoren, kaleak hartuko ditugu marianitadarekin, musikaz lagunduta. 14:30ean izango da bazkaria, gaztetxean bertan eta jolaserako tartea ere hartuko dugu MerendOka-rekin!

Iluntzeko 19:30ean Tukanak emango die hasiera gaueko hitzorduei, *performance* inprobisatu batekin, eta, gero, 21:30etik aurrera, kontzertu pila izango ditugu! Alu Zikinak, MJPQ, Dj Azkura...

Egunarekin lotutako kamiseta suuuuper politak atera ditugu, gainera, eta izen-ematea martxoaren 5era arte izango duzue irekita!

Zorroztu zuen lumak eta Andoaingen ikusiko dugu elkar! Buruntzaldea Kuirra Lumakadaka!

P.d.: Ez baldin badakizu egoten, ez etorri.



Egun berezia iragartzen duen pankarta, Zumea kalean. AIURRI

GORA ETA BEHERA

Osasun-etxea, 20:00ak arte zabalik

Otsailaren 24an hasita, Andoaingo Osasun Etxearen arreta zerbitzua goizeko 08:00etatik 20:00tara dago martxan. Hiru orduz luzatu dute ordutegia, iazko udaberrian 17:00ak arte murriztu zutenetik. Albiste ona, osasun arretaren premia duten herritarrentzat.



AIURRI

AIURRI KOMUNITATEA

SALESIAK IKASTETXEA

URNIETA

Lanbide Heziketako ate-irekiera

Ate Irekien Jardunaldiak antolatzen ari gara eta ekitaldi horietan, gure hezkuntza-proiektuaren berri eman eta instalazioak bisitatu, irakasle-taldea ezagutu, edo zuen zalantzak argitzeko aukera izango duzue. Datak martxoak 5, apirilak 9 eta maiatzak 7 izango dira. Guztiak arratsaldeko 18:00tan izango dira, Urnietako Salesiak ikastetxean. Etoritzeko asmoa baldin baduzue, hori adieraztea eskertuko genizueke. Horretarako, 943 551 789 telefono zenbakira deitu. Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturterako izen-emate epea maiatzaren 5etik 23ra izango da.

AIURRI KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA

URNIETA

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna

Emakumeek eta neskek zientzian sarbide eta parte-hartze erabatekoa eta berdintasunezkoa izatea lortzeko Nazio Batuen Batzar Nagusiak, Otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna izendatzea erabaki zuen. Gure helburua geletan zientzian diharduten emakumeen lana ikustaraztea izan da. Horretarako "Batera Gara" hezkidetzat taldeko partaideok hainbat jarduera prestatu ditugu gelan lantzeko: bideoak ikusi eta hausnartu, maila bakoitzerako galdetegi-jolasak eta emakume zientzialarien ginkana. Saio horietan zientzia, generoa eta berdintasuna aldarrikatu ditugu.



Alfonso Olano, Nekane Garmendia, Aingeru Lekuona eta Ainara Monroy, Itxaso arrandegian. AIURRI

“Jendea oso ondo portatu da beti gurekin eta oso eskertuta gaude”

Erretiroa hartuko dute Itxaso arrandegiko Nekane Garmendiak, Aingeru Lekuonak eta Alfonso Olanok martxoan, ia lau hamarkadaren ondoren. Ainara Monroy-k emango dio segida saltokiari

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Atzera kontaktetan sartuta daude, jada, Urnietako Itxaso arrandegiko Nekane Garmendia, Aingeru Lekuona eta Alfonso Olano, erretiroa hartuko baitute martxoan, arrandegian, ia lau hamarkadako ibilbidea egin ondoren. Idiazabal kaleko saltokiak segida izango du, ostera: aurrerantzean, Ainara Monroy-k hartuko du gidaritza.

Azken egunak dituzue Itxaso arrandegian, ia lau hamarkadaren ondoren... Azkar esaten da! Zer moduz zaudete?

Pixka bat, urduri, egia esan, nahaste berrastea sentitzen dugu: pena bai, baina baita poza ere, Ainararekin jarraipena izango duelako, berrikuntzekin, gainera.

Nola aldatu da arrainaren salmentaren negozioa lau hamarkada hauetan herrian?

Asko aldatu da Urnieta, ohituratan. Garai batean, ostiraletan asteburuari begirako erosketak handiak egiten ziren; orain, aisialdian pentsatzen egoten dira herritar gehienak. Jende gaztea herrian gelditzea behar da, erosketak egin ditzaten. Zer nahi duten eta nola nahi duten ere esan dezatela, zerbitzuari begira zer falta den: ordutegiak, eskatzeko erraztasuna... Egia da gurera datozenak jabetuta dau-

delo denda txikiak egotearen garrantziarekin, gertutasuna transmititzen diegulako. Finean, zahartzen ikusi gaituzte berezok eta haiei guk ere bai.

Orain, zer? Zein asmo daukazu, martxotik aurrera?

Atsedean hartu! Lasaitasuna behar dugu, arnasa hartu: bidaiaren bat egin, nahiz ordu berean esnatu, iratzargailua ez jarri... Ziurrenik, Alfonsok sumatuko du hori, gehien, goizean goiz arrain bila bera joaten delako. Saltsa polita sortzen da bertan, nahikoa arrain dagoenean. Gutxi dagoenean eta garesti...gogorra da!

Atsedean hartuko duzue hirurek; arrandegiak ez, ordea. Ainara, zuk hartuko duzu Itxasoren gidaritza.

Urduritasun pixka batekin, baina gogo handia sentitzen dut. Guztira, 23 urteko esperientzia daukat, eta, toki batetik bestera aldatu egiten denez lan egiteko modua, Nekane eta Aingeru ari zaizkit azalpenak ematen.

Zer esan nahi diezue, urte hauetan guztietan, zuengana gerturatu diren bezeroei?

Jendea oso ondo portatu da beti gurekin eta oso eskertuta gaude. Haiei esker gaude gu hemen, gurekiko erakutsi duten konfiantzagatik. Anima daitezela urnietarrak erosketak herrian egitera, bizitza herrian bertan dago eta!

Martxoaren 8ko egitaraua, Urnietan

Urtero bezala, egitaraua osatu du Urnietako Udalak, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, "emakumeen eta nesken ahalduzaren eta emakumeen eskubideen defentsaren aldeko apustua eginez"

Erredakzioa URNIETA

Honatz, martxoaren 8aren bueltan antolatutakoak. Horrez gain, Udalak adierazi du aferari estuki lotutako liburu-gida eskuragarri egongo dela liburutegian:
Tailerra: Kristalak poskekin margotzen

Martxoak 3. Gaztelekua.

Mahai jokoa: oka feminista

Martxoak 3. Gaztelekua.

Tailerra: Kristalak poskekin margotzen

Martxoak 6. Gaztelekua.

Elkarretaratzea

Martxoak 8. 11:30. S. Joan plaza

Antzerkia: puto amor. ¿Cómo amamos las mujeres?

Martxoak 9. 19:00. Sarobe.



Jorge Segurado alkatea eta Ainhoa Ostolaza zinegotzia, aurtengo afitxarekin. UDALA



Antzezlaren uneetakoa. DORA GALVEZ

"Puto amor" antzezlana, Saroben

Sinopsia: Gaurko *printzesak* nekatuta gaudelako hainbeste konturekin: estereotipoak, rol femeninoak, maitasun erromantikoaren mitoak, sexu femeninoa. Maitasunak, irakatsi ziguten bezala, ospatu genuen bezala, saldu eta erosi genuen bezala, sustraia patriarkatuan ondo sartuta dauka, eta maitasun erromantikoa deritzona da. "Puto amor" ikuskizunak modu ironikoan islatzen du emakume baten bizitza, maitasunean, amatasunean eta sexuan patriarkalizatutako beste hainbat emakumeren antzera, eta bere burua maitatzeko, ezagutzeko eta bere burua zaintzeko lehentasunak bizi garen gizarte sexistak eta matxista honetan batzuetan korrontearen aurkako borroka dakarrela.

Gidoia, antzezlea, zuzendaria: Dora Galvez.



ZUREKIN BATERA IREKITZEN DUGU EGUNERO,
zure negozioa bultzatzeko

Kresala Surf Eskola,
2023az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.

Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoak ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.

LABORAL
kutxa

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen omenez

14.000 pertsonentzako antolatutako ikuskizuna egingo dute datorren maiatzaren 3an, 17:00etan hasita, BEC!-en. "Maite zaitut!" izenburupean, artista mordoxkak hartuko du parte. Nikeremaitezaitut.eus webgunean salgai daude sarrerak



Kulturgile ugari bat egin du ekimenarekin. MAITEZAITUT

Julen Murua / Aiurri ESKUALDEA Musika, dantza, zirkoa, ikus-entzunezkoak eta beste hainbat arte diziplina uztartuko dira Bizkaia Arenako oholtzan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei herri omenaldia egiteko. Euskal eszenako hogeit hamar artista baino gehiago batuko dira Bizkaia Arenan, eta ikuskizuneko zuzendari Agurtzane Intxaurre "oso eskertuta" agertu da ikuskizunean parte hartzeko baiezkoa eman duten artista guztiekin. Dagoeneko hasi dira oholza gainera igoko diren artistekin lanean,

eta ikuskizuneko gidoia sortzeko ardura duen Ane Labakak iragarri du "abesti mitikoak" ohol-tzaratuko dituztela; besteak beste, *Musua*, *Amona Maria Luisa* eta *Maite zaitut*. Horrez gain, pailazoen historiaren lekukotasunak biltzeko deia ere egin dute antolatzaileek: "Ia guztiok daukagu txikitako argazkiren bat beraiekin, eta 37 urteko ibilbidean zenbat bihotzetan sartu diren erakutsi nahi diegu, BEC!-en argazki horiek guztiak plazaratuz", adierazi du Maite Zaitut elkarte kide Nerea Godoyk.

"Maite Zaitut" Festa Erraldoia herritar talde batek antolatu du, Maite Zaitut Kultur Elkarteak erakundearen bidez. Talde honetako kideek, webgunean diotenez, "pailazoen ibilbidea eta ekarpena aitortu nahi dute, euskal jendarteari egin dioten opari handiagatik eskerrak emanez".

Artista ezagunak, oholtzara

- Itziar Ituño.
- Lur Errekondo.
- Sua Enparantza.
- Gure Zirkua.
- Eñaut Elorrieta.
- Uxue Alberdi.
- Amets Arzallus.
- Olatz Salvador.
- Kai Nakai.
- Ines Osinaga.
- Amets Aranguren.
- Aitor Gorosabel.
- Maialen Lujanbio.
- Go!azen.
- Tapia eta Leturia.
- Landarbaso abesbatza.
- Oinkari dantza taldea.
- Bonberenea Txaranga.
- Beñat Gaztelumendi.
- Yogurinha.
- La Pulga.
- Jon Maia.
- Gozategi.
- Igor Elortza.
- Bizipoza elkarte.



ERRAN

Mirua abesbatza, Sorabillan

Sorabillako San Martin elizan izango da kontzertua, igande honetan, (martxoak 2), eguerdiko 12:15etan hasita. Sorabilla Auzo Elkarteak antolatutako emanaldia da eta doakoa da sarrera. Mirua Abesbatzak Ana Tejedorren zuzendaritzapean emango du kontzertua. Bere erreperitorio zabalean, euskal kantagintzako abesti ugari abesten dituzte.

Sahararen alde, bertsoan

Hurria-Sahara taldeak, Punttukarekin elkarlanean, urteroko saioa iragarri du. Aurtengoa datorren martxoaren 9an izango da, igandearekin, 12:00tan hasita. Sarrerak, 8 euroko prezioan, salgai daude Delgado, Ernaitza, Stop eta Urratsen. Bertsolariak: Aitor Sarriegi, Eneritz Artetxe, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Andoni Rekondo eta Nerea Elustondo.



BERTSOZALE

Bertso-afaria, Urnietan

Bertso-afaria antolatu dute Urnietako Gaztetxeak eta Aiurrik, martxoaren 21ean, Altuna sagardotegian. Etxe gertukoak izango dira bi protagonista bereziak: Eli Pagolak eta Unai Gaztelumendik girotuko dute iluntzea. Martxoaren 18ra bitarte, eskuragarri daude txartelak Kanto zein Matxo tabernetan eta Aiurriko erredakzioan.



BERTSOZALE



BERTSOZALE



ALERTA

Hard-core gaua, Andoainen

Aske antolakundeak hardcore musika estiloko gaua antolatu du larunbat honetarako, Andoaingo Gaztetxean. Lau talde ariko dira zuzenean: Durangoko Alerta, Zumaiako Hoben, Durangaldeko Konorte eta Oñatiko Lee Kore. Gaueko 22:00tan hasiko da kontzertua. Sarreraren prezioa borondatea bada ere, elkartasun-gaua izango dela zehaztu dute antolatzaileek.



AIURRI

Langararen ibilbidea, ikuskizun baten bidez azalduta

Isidro Langara Galarraga futbolariaren erakusketa ikusgai dagoen egunotan, "Osaba Isidroren maleta" ikuskizuna taularatu zuten aurreko igandean. Bastero Kulturguneko auditorioko oholtzatik Junkal Guerrero sustatzaileak ikuskizuna gauzatzeko funtsezkoak izan diren eragileak aurkeztu zituen: "Osaba Isidro hobeto ezagutzeko gonbidapena egin nahi dizuegu ikuskizun honen bitartez. Miguel Sanz eta James Harrimanek idatzi zuten 'The Lord of goal' izeneko lan biografikoa oinarritzat hartuta, Juan Kruz Igerabideri ipuin musikatu bat egiteko laguntza eskatu

nion. Benetako luxua izan da berarekin elkarlanean aritzea. Benetako luxua ere Katrin Iturralde musika-zuzendariarekin, Myriam Ulanga piano-jolearekin eta Andoaingo Udal Musika Eskolako abesbatza txikiko partaideekin batera, estreinaldia prestatzea eta taularatzea. Eta benetan hungigarria June eta Maialen Langara lehengusu txikiak narratzaile". Ordu erdiko ikuskizuna izan zen, landua, musika doinu eta ahotsez osaturikoa. Behin amaituta, ikusleen txalo zaparrada jaso zuten denek.



Aitor Sarriegi
Eneritz Artetxe
Oihana Iguaran
Aitor Mendiluze
Andoni Rekondo
Nerea Elustondo

Gai jartzailea:
Maddi Etxeberria

SAHARAREN

aldeko


BERTSO SAIOA

Andoaingo
Bastero Kulturgunean
Martxoaren 9an
12:00etan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats
8.00€



Antolatzaileak



Laguntzaileak



Eskualdeko korrikalariak, Lilatoian

Hamaika urnietar eta andoaindar izan zen, joan den igandean, Donostiako Lilatoian. Inoizko parte-hartzerik handiena eduki du hitzorduak. Orotara, 6.200 parte-hartzailek eman zuten izena



Ezker-eskuin: Maider Artetxe, Garazi Jauregi, Saioa Martinez, Amaia Urdangarin eta Saioa Urbistondo. ARTETXE

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA Eguraldia lagun, biribila izan zen joan den asteburuko igandea, Donostian: inoizko parte-hartze-

rik handienarekin, 6.200 korrikalari bildu ziren Lilatoia lasterketa ezagunean. Hala, Euskal Herri osoko makina bat txoko-

tako parte-hartzaileen artean, hamarnaka urnietar zein andoaindar hurbildu zen Boulevardera, urteroko ohiturak

agindu bezala, kirol-hitzordu erraldoiaren parte izateko. Horien artean, Urnietako bi korrikalari igo ziren podiumera, junior kategorian: Saioa Martinez Fonseca, bigarren postuan, eta Lide Lizeaga Jauregi, hirugarrengoa. Hala, Martinezen hitzak bildu ditu Aiurrik, lasterketa berezia gertutik ezagutzeko asmoz.

Iaz parte hartu zuen, estreinakoz, Urnietako korrikalariak Lilatoian, eta eguraldi kaskarra egin zuen arren, gozatu ederra hartu zuela du gogoan. Oso berezia egin zitzaion hitzordua, eta aurtengo ediziotik ere orotzapen polita gordeko du, aurrerantzean: "Perfektua izan zen joan den igandekoa: giro polita, izugarritzko jende pila animoak ematen, eguraldi paregabea...". Ospakizunetik asko duela uste du korrikalariak, baina, horrez gain, aldarrikapenerako aukera ematen duelakoan da Martinez, emakumeek kirolean duten rolari begira: "Pozgarria da askotariko adinetako milaka emakume elkar-tu eta lasterketa batean parte hartzeko aukera izatea". Kirol-jardueratik harago, egunean bertan dagoen giroa nabarmendu du korrikalariak, goizean goizetik baitago beroketa-ari-ketak egiteko zumba-saioa eta, ibilbideko zenbait puntutan, batukada nahiz txaranga egon ohi dira: "Lasterketa honen abiapuntua ez da kirola egitea,

soilik, emakumeei begirako ospakizuna ere bada".

Helburu zehatzik gabe, baina "gogotsu" ekin zion lasterketari Martinezek. Bereziki, mendian ibiltzen da urnietarra, eta ez dago oso ohituta distantzia laburreko korrikaldiak egiten: asfaltoaren gainean, 10 edo 21 kilometroko saioak egiten ditu, normalean. Hori horrela, ibilbidean aurrera egin ahala, korrikalariak atzean uzten hasia zela jabetu zen: "Txundituta utzi ninduen horrek". Erritmoa jaitsi gabe, eta lasterketa "oso sentsazio onekin" amaituta, ezusteko albistea jaso zuen: "Nire kategorian, bigarren postua lortu nuela esan zidaten".

Hurrengo urteetako edizioei begira, argi du Martinezek: "Emakume guztiak animatzen ditut parte hartzera; ez, soilik, korrika egiteagatik, baita sortzen den giroarengatik ere". Bakoi-tzak nahi duen modura egiteko aukera ematen duela dio Urnietako korrikalariak: "Miresgarria da lasterketa amaitzean sortzen den poztasuna, nor bere buruarekin harro egoteko modukoa".

"POZGARRIA DA ASKOTARIKO ADINETAKO MILAKA EMAKUME ELKARTZEA"


Zumeatarra Kirol Taldea

Atletismo eskola, atletismo taldea, triatlói taldea eta emakume taldea. Partaide guztiak elkartu ditu Zumeatarra Kirol Taldeak denboraldiko argazkia ateratzeko. Bide batez, babesleei eskerrak eman nahi dizkiete. Honako hauek dira: LKS Next, Mapfre, Txitibar, Dosys eta Azkain.



ZUMEATARRA

Andoingo eta Urrietako partaide ugari, aurtengo Lilatoian





Beñat Errazkin, artxiboko irudian. UKE

Laugarren garaipena jarraian erdietsi du Urnietak

ESKUBALOIA Azken garaipenari esker, ligako hirugarren postuan da Urnieta Artola Harategia

Erredakzioa URNIETA

Jardunaldi bikaina Urnietako eskubaloitzaile talde gehienentzat, baina batez ere lehen taldearentzat. Eibarren MEK taldeari irabazi zioten, sailkapeneko hirugarren postua kenduz. Urnietarrek partida bikaina jokatu zuten hasieratik amaierara, aurkaria markagailuan menderatu eta azken minutuetan aukerarik eman gabe. Defentsan sendo eta erasoan zuzen, partidako lehen abantailak lortu zituzten. Atsedenaldira markagailua aldeko zutela iritsi ziren (12-14). Aldageletatik igaro ondoren, gidoiak berdina izaten jarraitu zuen. Hamar minututan 2-6ko partziala lortu zuten UKEkoek.

Bost jardunaldiren faltan, sailkapena oso estua da. Egun, Urnieta Artola Harategia lurraldeko 1. mailako taldean igoera fasean sartzeko postuetan da.

Oraingoz, lasaitasuna. Asteburu honetan, jardunaldirik ezean, Inauteriaz gozatzea dago.

ESKUBALOIA

LURRALDEKO 1. MAILA, 17. jardunaldia:

MEK EIBAR-URNIETA 25-30

SAILKAPENA

1	HONDARRIBIA BIDASOA	30 p.
2	DONIBANE	24 p.
3	URNIETA ARTOLA	22 p.
4	MEK EIBAR	21 p.
5	ORDIZIA	21 p.
6	TXINGUDI GOIBAR	21 p.

18. jardunaldia:

TXINGUDI GOIBAR-URNIETA III.09

URNIETA ARTOLA HARATEGIA, UNE HONETAN, IGOERA FASEAN SARTZEKO POSTUETAN DA



Artxiboko irudia. AIURRI

Lehen zatian erakutsitako jokoan dago giltza

ESKUBALOIA Parez pare ibili ziren Leizaran Ernio Inmobiliaria eta Erromoko Eskubaloia taldeak

Erredakzioa ANDOAIN

Defentsan indartsu, erasoan ausart, joko bizia eta distiratsua... Allurraldeko hurbildu ziren zaltetuek lehen zati zirraragarria ikusi zuten. Are gehiago, ia lehen zati osoan Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea hobea izan zen. Erromoko Eskubaloitzaile taldeari kosta egiten zitzaion erritmoari eustea. Joera on hori bigarren zatian irauli zen eta, azkeneko, bizkaitarrentzat izan ziren garaipena eta bi puntuak.

Andoaindarrek joko ona dute, baina puntuak pilotzeko zailtasunak dituzte. Asteburu honetan aukera berria dute, Ereintzaren kantxan jokatu duten partidari. Sailkapenean bi puntuko aldeko besterik ez dago bi taldeen artean.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO SENIOR LIGA, 19. jardunaldia:

LEIZARAN ERNIO-ERROMOKO 27-35

SAILKAPENA

1	ZARAUZ	33 p.
2	USURBIL	30 p.
3	MUSKIZ	27 p.
4	ELGOIBAR	26 p.
5	URDANETA	25 p.
11	EREINTZA	13 p.
12	LEIZARAN	11 p.
13	TOLOSA B	8 p.

20. jardunaldia:

EREINTZA-LEIZARAN ERNIO LAR, 17:30



AIURRI

Leizaran Lanbroa, garaile

ESKUBALOIA Euskadiko 1. mailan garaipen estua lortu zuen Leizaran Lanbroa Tabernak, gol bakarreko aldearekin nagusitu baitzen. Parean izan zituzten Egia taldekoak. Andoaindarrek gorantz begira dauden bitartean, donostiarrak azkenaurreko postuan dira. Azkeneko, garaipena eta bi puntu gehiago, etxekoentzat. Sailkapenean 5. postuan dira.



UKE

Urnietako infantilen garaipena

ESKUBALOIA Denboraldiko bigarren garaipena lortu du Urnieta Ñam Restaurante taldeak, Bera Berari 22-20 irabazita. Urnietarrek markagailuari buelta eman behar izan zioten atsedenaldira donostiarrak aurretik zihoazelako. Garaipen ona erakusten ari dira UKEko gazteak, hilabeteotan egindako lan handiaren seinale.

Leizaran 24-26 Urnieta

ESKUBALOIA Garaipena eta multzoko lehen postua Urnieta Guria Jatetxearentzat, Gipuzkoako bigarren mailan, Leizaran Eskubaloia mende hartu baitzuen (24-26) Allurraldeko kantxan. Partida parekatua izan zen, baina agintea urnietarrena izan zen. Hori bai, emaitzari eusteko, gogotik sufritu zuten amaieraraino.



UKE / ARTXIBOKO IRUDIA



Urnietako
udala

Lehengo lepotik burua

TXIRRINDULARITZA Junior mailako txirrindulariek hasiera eman diote denboraldiari eta, bada, iaztik hona, aldatu ez den zerbait. Eta ez da edozer gauza: Paula Ostizek eta Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideek erakustaldia ematen jarraituko dute. Erreterian egin zen lehen proba, 65 kilometroko ibilbidean. Azken txanpan Ostizek ihes egin zuen eta tropelean Andoaingoek talde-lan bikaina egin zuten. Iزارo Etxarri sprintean gailendu zen, bigarren postua lortuta. Irati Aranguren 6. sailkatu zen eta Intza Del Teso, 29. Igande honetan ekingo diote Espainiako Kopari Cantabriako Noja herrian.



MARTIN EARLY



Etxekoentzat proba berezia izaten da. ANDOAINGO

Txirrindulari gazteen lasterketa, Andoaingo kaleetan barrena

TXIRRINDULARITZA Gaztetxoek lehen lasterketa ibilbide itxian egin zuten, aurreko larunbatean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo kaleetan dute Gipuzkoako txirrindulari taldeek denboraldiko lehenengotariko hitzordua, Andoaingo Txirrindulari Eskolak egokitzen duen ibilbide itxian. Bihurgune estu eta gaiztoak, maldan behera abiadura handitzeko aproposa

den zuzengunea eta itzuleran goranzko joerakoa bilakatzen dena, Leizaur parkearen azpialdean esprinta egiteko abagunea... Aproposa da, lasterketa batean sor daitezkeen egoera ugari ikasteko. Etxeko txirrindularientzat proba berezia izan zen, herrian bertan zelako.



Eskudero andoaindarra, artxiboko irudian. ORIAMENDI

Berria txapelketaren bigarren jardunaldia, larunbat honetan

ERREMONTEA Susperregi eta Apezetxea, A taldean, garaile, Gurrutzaga eta Eskudero, aldiz, B taldean.

Oriamendi HERNANI

Berria Erremonte Txapelketa

A taldea

2 Susperregi-Apezetxea

0 Irazu-Zubiri

[10-15 eta 8-15].

Apezetxea izan zen partidako onena. Beren eta Susperregiren artean bi akats bakarrik egin zituzten, defentsan ere bikain arituz. Susperregik Irazu baino abiadura gehiago eman zion pilotari eta hori ongi aprobetxatu zuen Apezetxeak. Ongi aritu zen sakean atzelari urdina. Bi setetan irabazleek abantaila hartu zuten markagailuan.

B taldea

2 Gurrutzaga-Eskudero

0 Goikoetxea V-Goikoetxea VI

[11-15 eta 9-15].

Aurreko partidaren oso antzekoa izan zen. Gurrutzagak eta Eskuderoak akats gutxiago egin zituzten eta detaile horretan oinarritu zen garaipena. Andoaingo atzelariak bikain errebotatu zuen. Goikoetxeatarrei erregulartasuna falta izan zitzaien. Lehengo setean zortzinako berdinketa eta gero egin zuten ihes urdinek. Bigarren seta errazago irabazi zuten. Joko hobe egin zuten irabazleek.

Euskaldunak partida eta lidergotza galdu zituen

FUTBOLA Roteta taldeak azken lau jardunaldietan garaipena eskuratu du eta horri esker da lider

Erredakzioa ANDOAIN

Hamaseigarren jardunaldian Euskaldunak 36 puntu zituen. Rotetak, berriz, 27. Ligan bolada onak joan-etorrian dabilta eta, azken lau jardunaldietan, Rotetak une gozoiari heldu eta atzean utzi ditu aurkari guztiak. Lau garren postutik lehenera egin du jauzi: une honetan geldiezina dirudi. Haren atzetik, puntuaketari begira, eskilara osatzen ari dira lau talde: Euskalduna, Orioko, Santo Tomas eta Touring B. Azken hori hartuko du etxean Euskaldunak (ostirala, 20:00).

FUTBOLA

GORENGO MAILA, 20. jardunaldia:

OSTADAR-EUSKALDUNA 1-0

SAILKAPENA

1	ROTEA	41 p.
2	EUSKALDUNA	40 p.
3	ORIOKO	39 p.
4	SANTO TOMAS LIZEOA	38 p.
5	TOURING B	37 p.



Sari-banaketa ekitaldia Kaleberrian egin zuten. ANDOAINGO





Bordaberriko pabiloien ikuspegi orokorra, zeinean agerikoa den halako espazio handien beharra. AIURRI

Karrozen prestaketa-lanak Bordaberri industriagunean

Andoaingo Inauterietako egun handia da larunbata, desfilearen eguna baita. Hemezortzi karroza prestatzen ari dira, egunotan, Bordaberri industriaguneko biltegi batean. Larunbata jomugan, azken xehetasunetan murgilduta daude gehien-gehienak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Badira Inauteriak ilusioz eta gogo bereziz prestatzen dituzten kuadrillak, eta horietako batzuk garaiz ekiten diote lanari. Izan ere, mozarrotzea ez dute aski eta karroza eta guzti irteten dira kalera. Egunotan lan handia hartzen ari dira, bejondeiela! Beren ekimenari esker Andoaingo Inauteria distiratsua izatera iritsi da. Azken urteotako joerari eutsiz, dozenaka dira taldean antolatu eta karroza, ibilgailua edo tamai-

na txikiagoa duen gurpildun trastea egokitu eta inauteriaz gozatzeko ari direnak. Hartutako lan hori guztia, ezer baino lehen, beren gozamenerako izan ohi da. Baina, era berean, herriko jaiari ikuskizuna eskaintzen diote, begirada askoren arreta bereganatuko baitute. Larunbata egun handia izango da, desfilearen eguna. Egun seinalatua iritsi ahala, Bordaberriko industriaguneko pabiloian mugimendua areagotuz doa. Aurreko egunetan


karrozak, karabanak eta antzeko trasteen egiturak prestatzen ari-tu dira. Lan horiek amaituta, erabakitako mozarroarekin bat datorren dekorazioari ekin diote. Askotariko gaiak direla esan daiteke, ez besterik. Zer ari dira prestatzen? Horixe da askoren galdera, egunotan. Hobe misterioari eustea, sekretua azkar argituko baita. Urrutira joan gabe, larunbateko desfilean: Andoaingo Inauterietako egun handian, hain zuzen.

Inauterietako ikuskizunen faktoria



Karroza baten aurrealdea, Andoaingo Inauterien afitxa agerian duela. AIURRI

Andoaingo karrozak prestatzeko tailerra Leizotz eta Sorabilla aldean hainbat urtez prestatuta lanetan aritu ondoren, aurtun. Bordaberri prestatzen ari dira karrozak. Herrigunetik gertu dago eta detaile hori aintzat hartzekoa da karroza hartzeko zein uzteko garaian.



Askotariko motiboei heldu diete aurtengoan. AIURRI

Mugimendu handia, azken egunotan Kuadrillak dira, nagusiki, karrozen sustatzaileak. Baina badira bestelako eragileak, esaterako, Klap dantza konpainia. Eta zer ari dira prestatzen? Larunbateko desfilea iritsi bitarte, sekretuan gordetzea, hobe!



Ieup! taldearen lan-mahaia. AIURRI

Lan eta lan ari dira gehienak Karroza bakoitzaren ondoan lan-tresnarik ez da falta, ez eta horrelakoetan ohikoa den materiala ere: egurra, margoak, oihalak... Oinarriak eta egiturak amaituta, dekorazioari tarte egin diote, azken egunotan.



Hutsik egiten ez duen andoaindar taldea, argazkian. AIURRI

Kaldereroen etorrera

Izan ziren garai loriatsuak zeinean dozenaka lagunek parte hartzen zuten Andoaingo Kaldereroetan. Azken urteotan nabarmen jaitsi da parte-hartzea, baina bada festari tinko eutsi nahi dionik. Hungariako pertsonaien ostean, bertan dira Inauteriak!

Jon Ander Ubeda ANDOAIN bada jaiari eusteko, antolatzen jarraitzeko eta zartaginak kolpatzeko indarririk. Ez, akaso, lehen zegoena. Baina Kaldereroen festari eusten diotenek ez dute hain erraz etsi nahi eta beste urte batez ospakizuna biziberritu dute. Aldaketak izan dira Gora Kaletxiki txarangaren barruan, eta horrek ondorio zuzena izan du Kalderero jaiaren antolakuntzan. Kide berriak sartu dira eta ospakizunari eusteko asmo berria agertu dute. Are gehiago, ospakizuna elementu berriez osatu dute eta, aurtan, estreinakoz, txokolate beroa banatu zuten Goikoplazan. Aurtan metatu duten esperientzia baliagarria izango zaie jaiaren antolatzaileei.

Arrate pilotalekutik abiatu zen aurtengo kalejira, Kaletxiki auzoan joan-etorriak egiteko ezin-

tasuna agerikoa delako. Aurretik, musikariek ohiko bisitaldia egin zieten Ama Kandidan bizi diren San Juan Bataiatzaileko egoiliarrei. Musika doinuen artean Nafarroa plazan eta inguruetan lehen erronda egin eta gero txo-

kolate beroa hartu zuten Goikoplazan. Eta, udaletxeko balkoitik adierazpena eta bertsoa abestu ostean, kalejirak jarraipena izan zuen Kale Nagusian barrena. Inauteriak bertan direla iragaritzen ari ziren kaldereroak.



andoaINDARRA
euskaraz

Udalerrian barrena, kalejiran



Joxe Mari Oartzabal zuzendaria, San Juan Bataiatzailean. AIURRI

Omenaldia Gora Kaletxiki txarangako kideek Ama Kandida etorbidean eman zioten hasiera kalejirari. Ezer baino lehen, Xabier Mujika San Juan Bataiatzaileko egoiliarra gogoan hartu zuten. Aski ezaguna eta maitatua zen herrian. Berriki utzi gaitu.



Bereziki, txikienek gozatu zuten txokolate beroarekin. AIURRI

Eskaintza berria Jaiaren antolakuntzan aldaketak izan dira. Eskaintza berriro asmoz, txokolate beroa banatu zuten Goikoplazan. Bertan zirentzat pagotxa ederra! Askaria egin eta gero, Kale Nagusirantz abiatu ziren kaldereroak.



Arrate pilotalekutik abiatu zen kalejira. AIURRI

Abiapuntu berria Kaletxikin egiten ari diren lanen ondorioz, aurtan, Kaldereroen etorrera Arrate pilotalekutik abiatu zen. Txarangaren lehen musika doinuen atzetik batuz joan ziren Andoaingo Kaldereroak.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

INAUTERIAK

ANDOAIN Ostegun Gizena

15:00 Ikasleen kalejira. Ibilbidea: Juan Bautista Erro, Kaleberria, Zumea plaza, Kale Nagusia eta Goikoplaza.

16:00 Pregoia eta txupinazoa, Udaletxeko balkoian.

16:45 Udal Musika Eskolako ikasleen Kalefesta, Plaza Morean eta Goikoplazan.

18:00 Gora bihotzak dantza-festa, Goikoplazan.

18:30 Olagain txistulariak, Zumea plazatik Goikoplazara.

19:00 Udal Musika Eskolako abesbatzaren kalejira: Plaza Morea-Zumea plaza.

Otsailak 27, osteguna.

ANDOAIN Ostiral Mehea

17:00 Lebiton buruhandi eta erraldoien konpartsa. Ibilbidea: Plaza Morea-Zumea plaza.

17:00 Mozorro lehiaketa, karaokea eta sorpresa, Ludotekan.

17:30 Bingoa, Gazte Lokalean.

19:00 "Mørøgråd", Brincadeira taldearen kalejira. Ibilbidea: Zumea plaza-Goikoplaza.

21:30-01:30 Olgetan musika taldea Goikoplazan.

Otsailak 28, ostirala.

ANDOAIN Larunbata

11:00 Mozorro festaren hasiera.

17:00 Inauteri desfilearen hasiera, Gora Kaletxiki txarangarekin batera. Ibilbidea: Txitibar plaza-Goikoplaza.

22:30-02:30 Nemux DJ disko-festa Goikoplazan.

Martxoak 1, larunbata.

ANDOAIN Igandea

12:00 Inauteri festaren jarraipena.

14:00 Inauterietako bazkaria, Goikoplazan. Bakoitzak bere bazkaria ekarri beharko du eta edaria jai-batzordeak jarriko du.

17:30 Zo-Zongó!! taldearen kalejira, Zumea plazatik Goikoplazara.

19:30 Sardinen segizioa Joselontxos txarangarekin. Ibilbidea: Goikoplaza, Kale Nagusia, Zumea plaza, Goikoplaza.

Martxoak 2, igandea.



Familia bat Strangers Things telesailaz mozerrotuta. INTERNET

URNIETA Inauteri-festa Urnietan, asteburu honetan

Otsailak 28, ostirala:

17:00 Merendola eta mozerro-lehiaketa, Gaztelekuan.

19:00 Sari-banaketa ekitaldia.

Martxoak 1, larunbata:

12:00 Poxta Zaharren eskutik, poteoa. Frontoitik hasita.

14:30 Herri bazkaria, Plazido Muxika plazan.

17:00 Mozorro-kalejira, San Juan plazatik abiatuta, Bosko Anitz txarangak lagunduta. Ondoren,

mozerro originalenak aukeratuko ditu Bosko Anitz aisialdi-taldeak.

19:00-21:00 / 22:30-00:30 Abiba disko jai.



Manifestazioa, iaz, Andoingo Agustín Leitza kalean barrena. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Martxoak 8ari loturiko hitzorduak

Martxoak 6, osteguna:

18:00 ANDOAIN: Solasaldia Bastero Kulturgunean: "Emakumeak Axeri Dantzan 25 urte".

Martxoak 7, ostirala:

19:30 ANDOAIN: Verde Prato eta Anari, Bastero Kulturgunean.

20:45 ANDOAIN: Emakumeen afora, Allurraldeko karpan

Martxoak 8, larunbata:

11:30 URNIETA: Elkarretaratzea, San Juan plazan.

12:00 ANDOAIN: Emakumeen Irradaka dantza-saio berezia Goikoplazan.


12:30 ANDOAIN: Manifestazioa Goikoplazatik hasita.

14:30 ANDOAIN: Emakumeen bazkaria, Oianume jatetxean.

Martxoak 9, igandea:

19:00 URNIETA: "Puto amor. ¿Como amamos las mujeres?" Saroben.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Vermiglio
Marxoak 1, larunbata. 19:30.
Marxoak 2, igandea. 19:30.
Marxoak 3,

astelehena. 17:00, 19:30.

Maria Callas
Marxoak 8, larunbata. 19:30.
Marxoak 9, igandea. 19:30.
Marxoak 10, astel. 17:00, 19:30.



SINOPSIS

Vermiglio (Vermiglio o la sposa di montagna)

Zuzendaria: Maura Delpero. **Aktoreak:** Tommaso Ragno, Giuseppe De Domenico, Roberta Rovelli, Martina Scrinzi... **Herrialdea:** Italia.

Urtea: 2025. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 119 m.

Italian egindako filma, Oscar sarietan hautagaia

Bigarren Mundu Gerraren amaieran Italiako Alpeetako mendiko herri urrun batean girotutako drama. Istoriok bertako maisuaren familian barnertzen da ikus-entzulea eta soldadu desertore baten etorrerak bere bizitza nola aldatuko duen erakusten du.

MERKATU TXIKIA

TXIMINIAREN GARBIKETA

Su baju eta ekonomikien garbiketa. Julen: 610 628 848

Emakumeentzako txirinda. 60 euro. Harremanetarako: Pili: 610 953 258.

ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorra badira hobeto! 650 341 108.

Bi ohe artikulatu salgai, koltxoi eta somierrak barne. Berri-berriak. 664 462 517.

SALMENTAK

Edariak hozteko hozkailu txikia. Neurriak: zabalera 0,48, sakonera 0,44 eta altuera 0,63. Prezioa 55 euro. Pili: 610 953 258.

MERKATU TXIKIAN IRAGARRI NAHI DUZU?

Bidaliz mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppe: 619 163 537

ZOKKETA



Verde Prato Anari

AiurriKIDeen artean 2 sarrera zozkatu ditugu

Irabazlea
Jaione Jauregi Garmendia
Zorionak!



Urrietako inauteriak, artxiboko irudian. AIURRI

Pantaila handiko izarrak, Urrietako Inauterietan

Inauteriak ospatuko dira Urrietan, larunbat honetan, Euskal Herriko makina bat txokotan bezala. Hori horrela, telebistako izarrez beteko dira kaleak, "pelikulak eta telesailak" izan baita aurten Jai Batzordeak aukeratutako gaia

Erredakzioa URNIETA

Larunbatean, eguerdian eman go diote urnietarrek hasiera ospakizun-giroari, Poxta Zaharren eskutik egongo den poteoarenekin. Frontoi tabernatik hasita, Plazido Muxikan amaituko

dute itzulia, eguerdiko 14:30ean herri bazkaria egingo baitu gazte kuadrillen elkarteak. Bi menu izango dira, aukeran, 15 euroan: batetik, makarroiak, oilaskoa zein postrea, eta, bestetik, menestra, pasta-entsalada nahiz

postrea. Behin tripa bapo beteta, arratsaldeko hitzorduei eman go diote segida, sketch-ekin eta jolasekin, eta, ondoren, Bixkor txarangak girotuko ditu kaleak.

Era berean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, mozorro-

kalejira izango da, San Juan plazatik abiatuta (euria eginez gero, Egape Ikastolan), urtero bezala, Bosko Anitz txarangarekin. Hala, behin erakustaldia eginda, mozorro originalenak aukeratu ditu Bosko Anitz aisialdi-taldeak.

Eguna biribiltzeko, Abiba disko jaia egongo da Idiazabal kalean, bi ordu-tartetan: 19:00-21:00 bitartean zein 22:30-00:30 bitartean. Kasu horretan ere, euria egingo balu, Egape Ikastolan izango litzateke.

Trafiko-oharrak

Goizeko 11:00etatik aurrera, Idiazabal kalea oinezkoentzat itxita egongo da, Arantzubitik Kandela tabernaren parera. Ondorioz, bi autobus-geltoki izango dira, Idiazabal kaleko mozketak irauten duen bitartean: Elkarteen Etxearen ondoko biribilgunean eta Ermotegiko Langardako biribilgune berrian. Taxi geltokia, bestalde, Idiazabal kalean, Elkarteen Etxearen ondoan dagoen autobus-geltokira aldatuko da.

Inauteriak, Gaztelekuan

Gaztelekuan ere izango da ospakizunik: hilaren 28an, bezperan, alegia, ospakizun-festa egingo dute, mozorroak soinean. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, merendola eta mozorro-lehiaketa izango da, eta, azkenik, iluntzeko 19:00tan, sarien bana-keta egingo dute.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Anne eta Gorka!

Azkenean iritsi da otsaila, eta berarekin zuen urtebetetzea. 4 urte haundi bete dituzue, eta zer nolako poza! Askok maite zaituztegu!



ANDOAIN

Hegoa

Zorionak bihotza, 5 urte! Zein handia zaren jada, handia bezain zoragarria. Ikaragarri maite zaitugu! Amatxo, Aitabko, Iker eta Haitz



ANDOAIN

Zuhaitz eta Hegoa

Martxoaren 3an Hegoak 5 urte eta 10ean Zuhaitzek 2 urtetxo. A ze bihurri pare eta ze festa elkartzen zaretenean! Muxuak!!!

ZOKKETA

HAUR IKUSKIZUNA



Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

AiurriKIDE batek 4 sarrera eskuratuko ditu

Parte hartzeko modua:

Idatzi "MARI", zure izen-abizenak eta bidali:

* Whatsapp: 619 163 537

* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Okm:
batzen
gaituen
distantzia

Egin zaituz AiurriKIDE

AIURRI KIDE

"Anbotoko Mari"

Logela Multimedia

**Martxoak 16, igandea
17:30. Sarobe, Urnieta**

Gari, mutiko txoro bat, lagunekin haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Mariren haitzuloan sartu eta harri magiko bat aurkituko du. Harria bertan uzteko esaten dion ahotsari kasurik egin gabe, lapurtu eta alde egingo du, harria lagunei erakusteko asmoarekin. Marik Tartaloren, iratxoaren eta beste jeinu batzuen laguntza eskatu beharko du harria berreskuratzeko. 3-10 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Zuzendaritza: Imanol Garaizabal.

Aktoreak: Eneritz Garcia, Unai Eleizalde eta Ander Garaizabal.

Musika: Logela Multimedia.

BERTSO AFARIA

UR NIETAN



MARTXOAK 21 · 20:30 · ALTUNA SAGARDOTEGIA

MENUA: TXORIZOA,
BAKAILAO-TORTILA,
TXULETA ETA POSTREA

35€*

TXARTELAK SALGAI: MATXO TABERNA,
KANTOI TABERNA, AIURRI.

EROSTEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAK 18, ASTEARTEA

*BERTSOLARIAK AIURRIREN ESKUTIK

 AIURRI

